

7) FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideak gure zerbitzua aurrera eramateko eta bezeroei eskaintzen diegun balioa sortzeko behar ditugun baliabide guztiak dira.

- 1) Baliabide fisikoak, negozioa martxan jartzeko eta eguneroko jarduna aurrera eramateko behar ditugun objektu eta espazioak dira. Gure kasuan, lokal egoki bat beharko dugu, baita mahaiak, aulkiak eta gailu teknologikoak ere, hala nola, ordenagailuak, inprimagailuak eta mugikorrak beharko ditugu. Horrez gain, eskoletara gure zerbitzua aurkeztera joaten garenean, bertako gelak erabiliko ditugu bilerak eta azalpenak egiteko.



- 2) Baliabide intelektuala, enpresaren ideiak eta ezagutzak dira. Gure enpresan, plataformen kudeaketa, mantentze prozesua, enpresaren irudia, logoa eta webgunea dira baliabide horiek. Baliabide hauek babestuta egongo dira, gure irudia zaintzeko eta kopiak saihesteko.
- 3) Giza baliabideak, enpresan lan egiten duten pertsonak eta haien gaitasunak dira. Gure taldeak informatikaren eta web-diseinuarekin lotutako ezagutza espezializatuak ditu, baita antolaketa eta salmentarako trebetasunak ere, enpresa ondo funtziona dadin.

Gure ekipoa bost kidek gara:

- a. Lehen kidea: publizitateaz arduratzen da, eta bere helburu nagusia, bezero berriak erakartzea da.
 - b. Bigarren eta hirugarren kidea: elkartrukeen antolaketa eta koordinazioa kudeatuko dituzte.
 - c. Laugarren kidea: eskoletara joango da gazteei gure zerbitzua aurkeztera, informazioa zabaltzeko.
 - d. Bosgarren kidea: finantzen arduraduna izango da eta haren helburu nagusia mozkinak maximizatzea da.
- 4) Finantza baliabideak, enpresa bat sortzeko eta martxan mantentzeko behar duen dirua eta kapitala dira. Hasieran, enpresako bazkide bakoitzak ekarpen bat egingo dugu lehen gastuei aurre egiteko. Hala ere, ekarpen horiek ez dira nahikoak izango behar guztiak estaltzeko. Horregatik, banku-mailegu bat eskatuko dugu hasierako kostuak ordaintzeko, hala nola, materiala,

instalazioak edo beste gastu batzuk. Mailegu horri esker, enpresak behar duen dirua izango du ondo hasteko. Finantzaketa egoki batekin, enpresak denborarekin irabaziak lortu eta etorkizunean ondo funtzionatzeko aukera izango du.